



## Herritarrek bozkatzeko unea iritsi da

**HAUSNARKETA** ▶ Atzo atseden eguna izan zen, eta familian igaro zuten alkategai gehienek

**BOTOAK** ▶ 09:00etatik 20:00etara eman ahalko da bozka; ondoren jakingo dira emaitzak ▶ 4-5

**TOLOSA** ▶

**Euria lagun, barazki eta perretxiko aukera**

Erritmo lasaia, atzoko azokan ▶ 3

**GAZTELU** ▶

**Goikoetxea eta Arteaga finalerdira pasa dira**

Kanflanka leitzarrak ez du aurrera egingo ▶ 3

**LEABURU** ▶

**Anjel Arrospide  
finaletik at utzi du  
Floren Nazabalek** ▶ 3



ASIER IMAZ



## Txalburu eskola berria inauguratu dute

**ALBIZTUR** ▶ Atzo egin zuten inaugurazio ekitaldia; herriko hurrek eta gurasoek abestu egin zuten, eta baita dantzatu ere ▶ 3

## UZTURRETIK ▶ JOXI IMAZ

## Hausnarketak



**B**i hausnarketa botoa eman edo ez, edo nori eman, erabaki ezinik daudenentzat: Euskal Herri mailan, gogoratu beharko genuke J.A. Arzteak zioena: «1512, 1879, 1937... Gaztelak Nafarroa konkistatzen du, foruak galtzen ditugu, Gernika bonbardatzen dute... Etsipengarrria da ikustea oraindik ez dugula ikasi aski. Atzetik ematen

ari zaizkigula, eta berriro ere sartuko digutela, baldin eta ematera datozenean ez badugu behingoz leioa nola itxi ikasten». Ez al dizue amorrazioa ematen euskal kirolariren bat telebistan agertzen denean, izenaren aldamenean ESP (Espainia) eta Espainiako bandera jarzea? Ez al dizue amorrazioa ematen, idatzi ofizialen batean nazionalitateak galdetzen dutenean, Espainia jarri beharra? Ez al zarete haserretzen norbaitek esaten duenean Leitza, Etxarri edo Elizondo ez direla euskal herriak?

Bailara mailan, Abiadura Handiko Trena da hurrengo urteetan Tolosalde-

an eta Euskal Herri osoan egingo den obrarik handiena. Hori horrela izanik, nola da posible gure herrietarako agintari izateko aurkezten zaizkigun partidu gehienak gai hau aipatu ere ez egitea? Oso zaila delako azpiegitura hau Tolosaldean saltzea. AHTK, Tolosa zeharkatu bakarrik egingo luke. Hiru geltoki bakarrik daude aurreikusita Gipuzkoa osorako: Irun, Donostia eta Ezkio-Itsaso. Logikoa da gainera, tren hau hiri handiak lotzeko pentsatua baitago, tartean gertzen diren Tolosaldea bezalako bailarak marjinatuaz. Inkesta batean Tolosaldeako jendeari galdetu zaienez urtean

zenbat aldiz erabiliko lukeen tren hau, %49k erantzun du ez lukeela sekula erabiliko, eta %38k urtean oso gutxitan erabiliko lukeela. Hau ere logikoa, gure mugikortasuna (lanera, erosketak egitera, aisialdikoa) bailara barnekoa edo bailara artekoa baita (Donostia aldera, Goierri aldera...). Abiadura Handiko Trena ez dago pentsatuta Tolosaldeako jende arruntarentzat. Baina kalteak Tolosaldea bezalako bailarak jasango dituzte: zarata, inpaktu bisuala, lur naturalak galtzen jarraitzea... Hernialdetik dator, Montesku tunelean zeharkatuko du, San Estebanen aterako da lur gainera, eta Olarrainetik pasa ondoren, Aldaba Txikitik barrena Alegi aldera jarraituko du. Begiratu orain partiduen programak, ea nork aipatzen duen gai hau.

## ARGAZKI ZAHARRA ▶



## Duela 12 urteko udal hauteskunderi begira

**Erredakzioa** ▶ Udal eta batzar orokorretako hauteskunderietan egun handia iritsi da, hau da, bozkatzeko eguna. 12 urte egin dugu atzera eta 1995. urteko hauteskunderiekin egin dugu topo. Bertan, ezkerrean goian ikus dezakegun bezala, Eusko Alkartasunako Joxe Gurruixaga Tolosako alkategaiak 2.793 boto eskuratu ondoren, berriro ere alkate izan zen. Berekin batera, 17 zinegotzitik 10 lortu zituen EAJk Jose Mari Agirre (ezkerrean, behean) zerrendaburu zela. Bestalde, HBK 2.113 boto lortu zituen, eta ondorioz, 4 zinegotzi Udalean. Eskuinean, goiko argazkian, Iñaki Elduaiekin ikus dezakegu bozkatzeko unean. Eskuinean, behean, berriz, herri txikitako adibide bat ikus dezakegu. Anotako kasua da; HBK alkatetzat berreskuratu zuen Jose Mari Sarasolarekin, gehiengo absolutoa lortu ondoren. GALTZALUNDI



## HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**AZOKA ▶**

**Euria lagun, barazki eta perretxiko aukera zabala**

Mendian izan den perretxiko kolpearen islada ikusi zen atzoko azokan

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasaia suertatu zen. Eguraldiak ez zuen asko lagundu, eta euri-tartean, erosketak erritmo lasaiean burutu ziren. Zerrenda zabala izan zen, batez ere barazki eta perretxikoena. Barazkien artean, baba, illarra, eta patata berria izan ziren nagusi, letxu, espinaka, tipula, porru edo eta kalabaza askorekin.

Perretxikoen zerrendak gora egin zuen atzo, mendian perretxiko golpea bait dago egun hauetan. Ziza kilo asko, ia 200kilo eta onddo kopuru zabala eta kalitate handikoa izan zen atzokoan, horien artean ziza horia eta senderuela. Ziza 20 eurotik 40rarte saldu zen, onddoa 30 eurotan eta ziza horia eta senderuela 25 eurotan.

**ATZOKO AZOKA ▶**

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Begonia	1,20	-
Alegria	1,20	-
Salbia	1,00	1,20
Gerania	2,00	-
Hortentsia	12,00	-
Erromeroa	4,00	6,00
Txinar kralbelina	2,50	-
Xarbota	4,00	6,00
Lobelia	4,50	-

**Bertako produktuak**

Onddoa	30,00	-
Ziza	20,00	50,00
Ziazarba	1,00	1,50
Senderuela	25,00	-
Ziza horia	25,00	-
Marrubia	3,00	-
Urta	2,00	3,00
Tolos. babarruna	8,00	12,00
Lekak	2,50	3,50
Kalabazina	0,72	-

**Produktu ekologikoak**

Sagarra	2,00	3,00
Barakuria	1,60	6,00
Inbaurra	4,00	6,00
Arroza	1,90	2,00
Arbi morea	4,00	-
Lebua	1,00	-
Arraultzak	3,50	-
Azukrea	3,35	-
Mermelada	3,00	3,60
Tipula	1,75	2,00

**ALBIZTUR ▶ HEZKUNTZA**

**Haurrek eskola berria inauguratu dute dantzaz eta bertsoz**

«Datorren kurtsoan hemen egongo gara ikasten» kantatuz haur eta gurasoek udala eskertu zuten «bereziki»



Txalburu eskolako haurrak, alpargata dantza dantzatu zuten inaugurazio egunean. A. IMAZ

**ASIER IMAZ**

Herri txiki batetako ikasleak gera/eta nahi dugu bertan ikasi/Txalburu eskolan guztiok/ospa dezagun, ospa dezagun/denok elkarrekin ikaste-

ko aukera. Abaltzisketako haurrek abestu zuten herriko eskolaren inaugurazioan.

Atzo 11:00etan, haurrez gain, irakasleak eta gurasoak ere eskola berriaren eraikuntza elkartu ziren Txalburu es-

kolaren inaugurazio ekitaldirako. *Agurra* eta *Alpargata* dantzaren ostean, bertsoan aritu ziren haurrak lehenik eta gurasoek lagunduta ondoren. Azkenik, gelak ikusi ostean hantzetako auzoak egin zuten.

**AMEZKETA ▶**



**Urteroko ohiturari jarraituz betizu jatea egin zuten Ugarten**

A. Imaz ▶ Amezketa Ugarte auzoan, urteroko ohiturari jarraituz, betizu jatea egin zuten atzokoan. Bazkaltzera ehun pertsona inguru bildu ziren antolatzaileen esanetan. Betizu jatea, Ugarteko elkarrekin antolatzen du eta auzoko frontoian burutzen da. Atzokoan gainera, eguraldi ez egonkorren ondorioz, ederki etorri zitzaizkien bazkaldarrei frontoian babesa. A. IMAZ

**SEGA ▶**

**Goikoetxea eta Arteaga finalerdietara**

Andoni Goikoetxea gazteluarra eta Arkaitz Arteaga ballaindarra sailkatu dira Euskal Herriko sega txapelketan finalerdietarako. Jon Kanflanka leitzarrak hirugarren postua lortu ostean atzo Berastegin, ez zuen aurrera egiterik izan. Goikoetxeari 1880,50 kilo bildu zituen. Epailerek 4 txartel gorri atera zizkioten gazteluarrari. Txartel gorri bakoitza 20 kiloko penalizazioa dela kontuan harturik, 80 kilo gutxiago zenbatu zizkioten. Arteagak 12 kilo gutxiago moztu zituen, 1868,90 guztira. Leitzarra berriz 1840 kilotan geratu zen.

**LEABURU ▶**

**Anjel Arrospide finaletik kanpo utzi du Nazabalek**

Urrezko Aizkora txapelketako finalerdia Vianan jokatu zen atzo. *Nafarroa Oinez 2008*ko egitarauaren barnean kokatuta zegoen ekitaldian, Anjel Arrospidek ezin izan zuen txapela irabazteko favoritoa den Floren Nazabalek gaititu. Guztira 1,18 minutu galdu zituen leaburuarrek. Finala ekainak 3, igandean jokatu da Azpeitian. Bertan Nazabalek Olasagasti izango du txapelaren lehian arerio.

**GRUPO OTEIC**  
 + ALTA GESTIÓN + LEGAL + RECURSOS HUMANOS  
 + GESTIÓN INDUSTRIAL + SISTEMAS DE INFORMACIÓN  
 + SISTEMAS DE CALIDAD, SEGURIDAD Y MEDIO AMBIENTE

**GRUPO OTEIC**  
 Parque Empresarial Zuzatu, Edificio Igeldo Pibenta 1ª  
 Tel. 943 31 68 69 Fax: 943 31 64 68  
 E-mail: oteic@oteic.com 20018 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

**TOLOSALDEA GARATZE** Nek, Tolosaldeko Garapen Agentzia, ondorengo lanpostua bete behar du:

**Enpresa-Zerbitzuko Arduraduna**  
 (Erref. 2576)

Gerentziaren menpean, Enpresa Zerbitzuko Sailaz arduratuko da. Merkatu prospektzioan, beharren diagnostikoan eta enpresa kudeaketaren hobekuntzan eta aholkulari lanetan eragin handia izango du, eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin. Era berean, enpresen arteko eta Agentziarekiko harremanak sustatuko ditu.

Lanposturen profila:

- Goi mailako titulazioa (hobe, Enpresa Zientzietan lizentziatua Goi Mailako Industrial Ingeniaria edo antzekoa).
- Enpresa-Kudeaketaren alorreko prestakuntza osagarria aintzat hartuko da.
- Balaratu egingo da, era berean, eskarmentua erantzunkizunezko postuetan, eta enpresa egiturekin harreman estua izatea (Auditorian, Aholkularitzan, e.a.)
- Euskaraz jakitea: 3. hizkuntza eskakizuna. Ez daukatenei, maila neurtzeko azterketa egingo zaie. Ingelera jakitea balaratuko da.
- Pertsona arteko harremanetan gaitasun ona behar du, saiata, eta ekimena ere izan behar du.

Talde dinamiko baten barruan, garapen pertsonal eta profesionala dakarren proiektua eskaintzen da.

Informazio gehiago [www.tolosaldea.net](http://www.tolosaldea.net) edo San Esteban 20, Tolosan.

Interesatuak, [seleccion@oteic.com](mailto:seleccion@oteic.com) edo Donostiako 20080, 686 posta-kutxatilara idatzi behar dute. **Curriculum** osoa, prestakuntzaren egiaztapiria eta, bere kasuan, 4. hizkuntza eskakizunaren argazkiak bidali behar dira. **Currículum** osoa gertatu den erreferentzia adierazti behar da. Aukeratuak hantza gaitz besterik ez zaie erantzungo (15 egunetan gutxi gorabehera).

# Amaitu da burrunba

### Maiatzaren 11n hasi zen hauteskunde kanpaina eta 15 egunen ondoren ostiralean 00:00etan amaitu zen. Atzokoa hausnarketa eguna izan zen, burrunbarik gabekoa, eta bozkatzeko bezpera

#### NAIARA GARZIA

**A**maitu da hauteskunde kanpaina. 15 egun izan diren arren, utzaian gertatu da jada lehenengo eguna: maiatzaren 11n eskualdeko herrietan kanpaina atondurik agurtu zuten hura. Kanpaina, alderdi ezberdinen aldeko furgonetak, ekitaldiak... Politikoak ere ohi baino maizago ikusi ditugu kalean edo egunkari-ko orrietan. 2 aste hauek luze eta motz joan dira, luze politika protagonista baitarra izan den heinean eta kalean eta etxean lupide nagusi izan den heinean, eta motz, 2 asteetako promesa eta proiektuak hitz-hutsaletan galdituen badira behintzat. 2 aste politika egiteko eskas galdituen baitira. Hauteskunde kanpainaren ondoren gaurkoa izango da egun garrantzitsua, hausnarketa egunaren ondokoa, herritarrek beren bozka emango baitute.

Hauteskunde kanpaina ostiralean amaitu zen, 00:00etan, eta amaitzearekin batera hausnarketa eguna delakoa iritsi zen, zalaparta ondorengo hitz-tasuna, bozka eman baino lehen ezinbestekoa. Egunak goi-belagutu zuten, eta eskualdeko herrietako kaleak ohiak modura berreskuratu zuten, eta eguraldiaren laguntzarekin, egunero-koitxearen xarma eta lasaitasuna izan ziren nabarmen. Ez zen megafoni soinurik entzun, ezta ekitaldirik antolatu, eta herrietako hormetan itasurik dauden afiak iragan bihurtuko dira lehenbaiten.

#### Familiairekin

Alderdi politikoek hausnarketa egunaren bozka eskatu ez diezaketen arren, beste zenbait jardura egiteko aprobetxatu ohi dute familiarren baitan edota alderdikiaren laguntzarekin.

kin. EAP-AN'Yren Toloako alkatetzarako hautagaiak. Antxon Izagirek, esaterako, familia giroan pasatu zuen atzoko eguna. «Hausnarketa egunak nire ustez ez dauka zentzu handirik, jendeak gaurko bere bozka erabakitzea baita. Herrietarrek bombardaketa balaia izana eskertzen dute, egun askotan zarata asko izan ohi da, baina ideia gutxi: askotan kiloxak errepikatuta egiten dira. Jendea kanpainarekin aspertu egiten da eta amaitzako desira izen egoten da».

Oniritza Lasak, Earen Toloako alkatetzarako hautagaiak ere familiarrekin pasatu zuen eguna eta arratsaldean saskibaloi partida bat ikustera joan zen familiararekin. «Egun hau antolaketara gaur joan da, baina aldi berean, biharko egunaren aurrean geldidune bati».

Anjel Yañezek, Toloako alkatetzarako P'Ren hautagaiak Hausnarketa Eguna etxean igarotzea azaldu du. «Eguna lasai pasatu dut, familiar, beste noble jokatzan duten errepertorioa. Oscar Renedo PSE-EBren Toloako alkatetzarako hautagaia, aldia guzuzan kaleran ibili zen. «Kalean ibili naiz, pote batzuk hartu ditut eta gausen ekarrikoak kanpoan alferdiak dugu. Politikoak horrelako egun bat ongi datorki-gu».

#### Uturrera

Ea'iren hautagaiak, ordea, eguraldi txarra eragin arren, Uturrera igo ziren, «Hausnarketa egunaren lasaitasuna da gaurtik aurrerantzat. 15 egun hauek guztiontzat, bai herritar, bai politikontzat, estresanteak izaten dira eta horregatik, nire ustez, lasitzeko denoi ongi datorkigun egun bat da», azaldu du Jokin Beldarrak. Ea'iren Toloako alkatetzarako hautagaiak.



Ea'iren zerrendagaiak Uturrera izan ziren atzo. HITZA



Oniritza Lasak Toloasa-Aralarren saskibaloi partida ikustera joan zen familiarekin. N. GARZIA

**UDAL HAUTESKUNDEAK**  
**bihar HITZAN**  
eskualdeko emaitzak herriz herri

**iragarki laburrak**

**ALOKAIRUA**  
Karabana bat alokatzen da, guztiz erosoa. Interesatuta daudenak deitu ondorengo telefono zenbakira: 657 36 98 87

**BESTELAKOAK**  
Artzai txakurkumea, Artzai txakurkumea apartzen da. Interesatuta daudenak deitu ondorengo telefono zenbakira: 665 72 19 84

**UDAL HAUTESKUNDEAK**  
Datorren hilaren 27an izango dira udal hauteskundeak. Toloaldean eta Leizaldean, Webgunean herri guztietan aurkeztu dituen zerrenda guztiak kontsultatu dituzte. Oratorra bi eskualdeetan 115 zerrenda aurkeztu dira.

# Iritsi da herritar bakoitzak bere bozka emateko unea

### Gaur 09:00etarako irekiko dituzte hautes kolegioak, eta 20:00ak bitarte izango dute herritarrek bozka emateko aukera; handik gutxira jakingo dira emaitzak

#### ERREDAKZIOA

Hauteskunde kanpaina amaituta, hausnarketa eta gogotarako eguna igarota, bozkatzeko besterik ez da gertatzen. Gaur izango da horretarako eguna. Hona hemen bozkatzaren inguruko hainbat xehetasun:

#### ORDUTEGIA

Hautes kolegioak 09:00etan ireki eta 20:00etan itxi dituzte. Aurreko egunetatik ballaroko eskolak eta udal egoitzak hauteskunde egunerako prestatu jarriak dituzte: mahaia, aulkia, hautesontziak, bozka paperak gordetzeko kabinatxoak...

#### ERAMAN BEHARREKOAK

Nortasun Agria (EHA) hautes mahaiaik ematen bada, pasaportea edo gida baimena.

#### MAHAIAK NON?

Tolosan, adibidez, zazpi lekutan bitzen dira 7 mahaiaik: Amaro, Izaskun eta Berazubi eskolak, Kultur Etxea, Santa Mariaiko apaitz etxea, Gorosabel Zaharra eta CIT Ibarren eta Vilainbonan. 3 mahaia ezberdin dituzte herritarrek bozka emateko, eta Zizurkilien, bertiz, bi mahaia.



Hautesontziak prest zeuden atzo. HITZA

#### MAHAIAKONAK

Mahaia bakoitzean hiru pertsona dazude eta alderdi bakoitzetik interbentore bana. Alderdi bakoitzeko apoderatuak mahaia mahaia eta bertiz herri ibiliko dira egun osoan.

#### KORREOZKO BOTAK

Egunean zehar Posta zerbitzuak korreoz bidaltzeko botoak emango ditu mahaiaietara.

trontzirik atera eta kontaketak publikoko egozko dute. Mahaiaiek eta interbentoreak izaten dira botoa ematen azkenak. Emaitzen dokumentazioa alferdi, kartasletan sartu eta mahaia lehenbaiterako eta boko-lek emango dituzte bi kopia epilogia. Emaitzen beste kopia bat Donostia Gogorra Zibilera emango du Posta zerbitzuak. Udaletean ere jasoko dituzte emaitzak. Foru Aldundira pasatzeko. Leizeta eta Aresoren kasuan, Iruñera eta Foru Diputazioetara emango dituzte emaitzak.

#### UDALETEAN

Egunean zehar, udal langile batzuk udaletean egozko dira hautes mahaiaien sortzen diren arazoak konpontze alderdi errotan ageri ez diren pertsonak bozkatzera joaten badira, auzonak gauzatu dituzten kasuak konpontzea, bestelako oherak...

#### BATZAR NAGUSIAK

Udalako alkate eta zinegotziak osatutako gain, Gipuzkoako batzar orokorretarako eta Leizeta eta Aresoren kasuan, Nafarroako Gobernua osteko ere emango dugu bozka gaurko egunez.

**HEZIKETA ZIKLO INDUSTRIALAK**

**BERRIKUNTZAK 2007/08 ikasturtean:**

**Go-Mailako Ziklo ELEANTZAK:** euskarra/gaztelania/ingeleza

**PROIEKTUETAN oinarritutako irakaskuntza**

**15 urteko esperientzia**

**Erdi-Maila A/D ereduak**

- Mekanizazioa
- Makinaria eta linea erabidien instalazioa
- eta mantentimendu elektromekanikoa

**Go-Maila A/D ereduak**

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produktzioa
- Industri ekipoen mantentimendua

**... informa zaitetz!**

**Ate irekiak:**  
**Maiatzak 30, 19:00etan eta ekainak 2, 11:30ean**

IMH, Azkue Auzoa, 1 - ELGOIBAR - Gipuzkoa - Tel.: 943 74 41 32 - imh@imh.us - www.imh.us

## HITZA eta irratsaio bereziak

**HITZA.** Bihar, astelehena, hauteskunde buruzko zenbaki berezi alerako du TOLOSALDEKO eta LEIZALDEKO HITZAK: herri guztietako emaitzak, baietako herri handienetako zinegotzi argazkiak, irabazte suertatu diren adierazpenak, Gipuzkoako batzar orokorretako eta Nafarroako Gobernuo emaitzak... **Talare irratia.** Gaur gauetan, 20:00etatik aurrera, udal eta foru hauteskunde inguruko saio berezi egingo dute eskualdeko irratien. Toloaldeko emaitzen berri emango dute, eta udal ondokari berriak ekarritzeko dituzte. FM10 107.5ean edota 101.2an antzun ahaliko da, edo bestela [www.tolobere.org](http://www.tolobere.org) webgunean.



Duela 4 urteko HITZaren azala.

GIZARTEA ▶

# A'i herriaren aieneak

1.200 kide dituen herri baten egunerokoan bi hilabetez murgiltzea, mundua ulertzeko beste modu bat ezagutzea... Aguarico ibaiertzeko irakaspenak dira

MIKEL ERRAZKIN

**H**erri honetakoek a'i deitzen diote beraien buruari, a'indeccupluralean. *Jendea, pertsona* esan nahi du a'i hitzak. Alabaina, *cofan* deitzen diete askok —haiek ere erabiltzen dute izen hori gaztelaniaz mintzo direnean—, horixe baita kolonizatzaile espainiarrek ezarri zieten deitura. Amazonia mendebaldeko lurralde ibaitsuetan, egungo Kolonbia eta Ekuador estatuen muga gunean, Guames eta Aguarico ibaiek mugatutako lurraldean bizi izan den herri nomada bat da a'iena. Kolonizatzaileak heldu aurretik zen hori.

Mendebaldeko herrialdeek 1536. urtean ezagutu zituzten a'iak, kanelaren lurraldearen bila espainiarrak konkista garaian bertaratu zirenean. Sinesun berrien bila zebiltzan misiolari atzerritarrek heldu ziren Amazoniako lurralde honetara lehenik; kautxu biltzaileak ondoren; eta koka landatzaileak, petrolio langileak eta militarrek azkenik. Kolonbia eta Ekuador estatuak sortzean, erakunde administratibo berriak eratu ziren, eta a'iak bitan banatzea ekarri zuen horrek. Kolonbiako a'i komunitate nagusiak Guames eskualdean bizi dira, Putumayoko intendentzia. Ekuadorko a'iak, beirri, Sucumbios probintzian, Aguarico ibaiertzean. Ekuadorko estatuan, hamar komunitate daude: Dureno, Dovuno, Sinangoe, Zabalo, Chandia Na'en, Tayosuncanque, Aguas Blancas, Bavoroe, Pisorie eta Bermejo.

## Gutxitzea

XVII. mende hasieran herri honetako 15.000 kide zeudela uste da. Gaur egun, 1.200 kide osatzen dute a'ien herria, eta mugaz bi aldeetako a'iek ez dute inongo harremanik elkarren artean. XX. mendean, Mendebaldeko gizartearen presioa jasan behar izan du herri honek. Gainera, 50eko hamarkadatik aurrera, lurraldea Ekuadorko petrolio esplotazio nagusi bilakatu da. Petrolioak merkataritza hazkundera izugarria ekarri zuen. Horrek asko eragin du herri honen gizarte, kultura, ingurumen eta demografian.

«Guk gure legeak ditugu;



**Haurrak.** 1989tik a'i komunitateetan a'ingaez eta gaztelaniaz erakusten dute, baina ez dago behar adina irakaslerik. Irudian, Sinangoeko (Sucumbios, Ekuador) umeak ageri dira. MIKEL ERRAZKIN

gure kondairetan, gure ipuinetan, gure ohituretan, gure bizitzan, hasieratik jaso ditugu. Lege horiek natura eta gu elkarrekin bizi gaitzen laguntzen digute. Indigenok gure lurraldeko eskubideak ditugu, estatuak sortu aurretik gureak izan baitira lur hauek», dio Luis Narvaezek. A'i guztiak batzen dituen Feince (Cofan Nazionalitateko Indigenen Federazioa) erakunde lehendakaria eta Sinangoe komunitateko kidea da. Lurra erabiltzeko, babesteko eta administratzeko eskubideak aitortu behar zaiela erantsi du: «Oihaneko herrialde nomada bat gara, eta lurralde zabala behar dugu, gure kultura eta jakintza egoki garatzeko».

Kultura propioari eusteko, ordea, arazoak dituzte. Hizkuntzari eusteko, esaterako. Hainbat adituk a'ingae hizkuntza chibcha familia linguistikoan sailkatzen badu ere, aditu gehienek sailkapen guztietatik kanpo ezartzen dute inguruko hizkuntzen aldean erabat ezberdina den mintzaira hau. 1989tik, a'i komunitateetan ele bitan irakasten da, a'ingaez eta gaztelaniaz. Alabaina, Zabalo komunitateko Toribio Aguinda irakaslearen esanetan, ez dago

behar beste irakasle indigena «prestatu». «Lan teoriko izugarria eginga badugu ere, irakasleon kalitatea ez da egokia». Gainera, eskola uzten duten umeak asko dira, «gurasoen baliabide ekonomikoa urriengatik» ikasleek lan egin behar dute eta.

Finceko Luis Narvaezek «gutxiengo baten kultura gutxitua» du hipzide, «xurgatua» izateko zorian dagoen herria: «A'iek etengabe egiten dugu talka petrolio eta meatze ustiaketa eta nekazaritza kolonizatzailea oinarri dituen gizarte eta Amazoniako ingurunea arrotz zaizkion sistema sozioekonomiko eta kultura uniforme honetara. Mendebaldeko kultura *eredugarriaren* paradigmak gu baztertzea ekarri du». Horrek guztiak, nabarmendu duenez, identitate propioa baztertzea eraman ditu a'ien herritar asko.

Gazte jendearen artean nabari da hori gehien, zehaztu duenez: «Balio kulturalak, hizkuntza, instituzioak, mundua ezagutu, ulertu eta erabiltzeko moduak galtzen ari gara, transmisioa eteten ari da».

## Zauriak

«Aukeratutako lurraldea oihaneko onena da, ehiza eta arrantza eta sendabelar mota ugari dagoelako, lurra hondartsua delako, ibilerraza. Horregatik, ez duzue laga behar *cuccam*-ek (zuriek) lur hau ken diezaguten. Izan ere, egunen batean gugana etorri eta gure lurra zaurituko dituzte». Guillermo Quenama a'i shaman agintariarenak dira hitzok, Aguarico ibaiertzeko oihan zati honetan Dureno komunitatea kokatzea erabaki zuen garaiakoak. Quenama izan zen a'ien azken shaman buruzagia, eta, hark aurreikusitako bezala, 1969an Texaco petrolio konpainia a'ien lurraldera etorri zen, eta oihan guztia hondatu zuen, ibaiak pozoiitu, eta ehiza eta arrantza desagerrarazi. Petrolio konpainia horrek ordaindutako pertsonen Quenama hil zutela salatu izan du hainbat erakundek behin baino gehiagotan. Geroa jakin da, Texacoren eraginez, a'ien artean arruntak ez ziren eta shamanak senda ezin zituen hainbat gaixotasun sortu zirela: besteak beste, hemorragiak, abortuak, azaleko pinportak eta beherakoa.

Eta garai batean a'i komunitateetako buruzagi ere baziren shamanak sendagile soil bilakatu dira. Quenama izan zen gaiztakeria ororen aurkako azken babesle eta ondoezik zeudenen sendagilea.

Gaur egun, sendabelarrak oihanean biltzen ikusiko dituzu shamanak. Fernando Criollo da horietako bat, eta, haren hitzetan, *yaje* edari («sakratu eta sekretua» edaten dutenean, a'i shamanek eri dagoenaren gaizkia ikus dezakete. Baita sendabelarrak zein ondorio eragingo dion ikusi ere. «Badakigu gaixoa hilko den edota bizirik aterako den ere».

Quenamak sortu zuen Dureno komunitateko gaur egungo shamana da Criollo, eta, nabarmendu duenez, *yaje* edalea izatea bizitza estilo berezia izatea da: «Baruaren eskolan egotea, irakaspen bide luzea, sufrimendua dakar horrek. Emakumeengandik urrun bizitzea, shaman ikaslea zailtzeko zigor eta proba ugari jasan ahal izatea. Hori guztia jasan duen shamana ez da eroriko gaizkian eta boterearen erabilera desegokian». Horregatik, *yaje*-a ezin du edozeinek edan, «iluntasuna besterik ez baitu aurkituko».

Etnohistoria eta kultur arrazoiak direla medio, oraintsu arte, herri honek ez du izan etorkizuna ikusteko beharrik. A'iek ingurumenari erabateko errespetua erakusten dion ekonomia bat izan dute gaur egun arte. Egunean-egunean bizitzegatik nabarmendu izan da haien bizimodua. Horretarako, hektarea bakarrekoko baratzeetan aldatu izan dituzte platanoa, juka, artoa... *Chakra* deitzen diete baratze horiei. *Chakra*-k, ehizak eta arrantzak, dirurik erabili gabe, bizitzeko nahikoa ematen zieten.

«Garai hartan, a'iek ez genuen inongo kezkarik ezer erosi edota saltzeko, oihanean bakenuen nahi beste janari. Aire garbia genuen, ur garbia, hai-zearen txistu soinua pertsonen arteko kontaktua zen, eta txorien kantuak gure herriari alaitasuna ekartzen zion», dio Elena Piyouajek. 110 urte inguru ditu, baina ezin da zehatz jakin, inon ez dagoelako jasota zein egunetan jaio zen. A'i herriko kide zaharrena da, hala ere.

## Moneta ekonomia

Azken hamarkadetan, moneta ekonomian sartu dira a'iak; jantziak, sendagaiak eta hezikuntza lortzeko. Aldaketa horrek ondorio gordinak ekarri





**Hezkuntza.** Toribio Aguiña Zabalo komunitateko irakaslea bere ikasleekin. MIKEL ERRAZKIN



**Ehiztaria.** A'i herriko kideek arrantzatik eta oihanetik lortzen dute jatetxea. MIKEL ERRAZKIN



**Adindua.** Elena Piyuaje. 110 urte inguru ditu eta a'i herriko kide zaharrena da. MIKEL ERRAZKIN



**Shamana.** Guillermo Quenama, a'i herriak izan zuen azken shamanburuzagia. Dureno komunitatea berak sortu zuen. MIKEL ERRAZKIN

dizkio a'i herriari: borkxakeria, alkoholismoa... eta, batez ere, kultur eta gizarte komunitatea desegitea. Zuhaitzen mozketa eta petrolioaren kutsaduraren eraginez, ehiza eta arrantza gutxitu egin dira hemen. Ehiza eta arrantza tresnak eta sistematik ere aldatu egin dira. Horren eraginez, egungo a'ien dietan karbohidratoak dira jangai nagusia, platanoen, jukaren, galleten, pastaren eta arrozaren bitartez.

«Arlo espirituallean, sendagai naturalen jakintzan, ingurumenari zor zaion errespetuzko nekazaritzan, artisautzan, janzkeran, mitologian eta kosmobiologia ere ikus daiteke gure balioen galera», erantsi du a'ien eskubideen aldeko militante Luis Narvaezek.

Eta Texacoren kaltea nahikoa ez, eta koka sailen kontrako aire fumigazioek substantzia kimiko hilgarriak atxiki dizkiete oihan sail honetako landareei. Gaixotasun hilgarriak ugariarazi ditu horrek ere. Heldu da Guillermo Quenama shamanak iragarri zuen izurria.

**M. ERRAZKIN**

Sucumbios probintzia Ekuadorko ipar-ekialdean dago; bertan bizi dira Ekuadorko a'i komunitateak, eta muga egiten du Kolonbiarekin. Amazoniako lurralde horretako biztanleak hainbat herri eta kulturatakoak dira. Jatorrizko biztanleak siona, secoya eta a'i herriak dira. Gerora, kichwua eta shuarak (jibaro ere deitzen diete) gehitu zitzaizkien. Gaur egun, bertako taldeek populazioaren %45 osatzen dute. Gainerako biztanleak mestizo kolonoak eta afro-ekuatortarrak dira.

Petrolio ekoizpenaren zerbitzura sortu zen probintzia hau. Ekuador gutziko petrolioaren %85 bertan ekoitzi arren —es-

tatuko BPG Barne Produktu Gordinaren %50 baino gehiago—, hemen zail da gasolina lortzea, eta bertakoen oinarriko beharrezko erantzuteko azpiegiturarik ez dago. Hemen, oso handia da letratu gabeen, behar adina jateko aukerarik ez dutenen eta ume hilen tasa. Ospitale bakarra dago probintzia osoan, eta txetan ez dago edateko urik, bi egunehin argindarrik gabe geratzen da jendea.

Gizartearen egoera kritikoa hainbat arazo sozio-ekonomiko-politikok larriagotzen dute: kafearen prezioaren jaitsiera nazioarteko mekatuan, monetaren dolarizazioa, estatua eta probintzia gidatzeko agintarien gaitasun eza, eta Kolonbia Plana.

**Gatazkaren erdian**

Kolonbiako Putumayo departamenduak muga egiten du Ekuadorko ipar-ekialdearekin, eta bertan daude Kolonbiako a'i komunitate nagusiak. Baita a'i herrikoei zuzenean eragiten dien arazo nagusietako baten gunea ere. Koka landare eta kokaina produkzio gune bilakatu da departamendua, azken hamarkadetan batez ere, eta FARC (Indar Armatu Iraultzaile Kolonbiarrak) gerrillaren eta AUC (Kolonbiako Autodefentsa Batuek) talde paramilitarren arteko gatazka erabat gordina da bertan.

Are gehiago larritu da egoera, AEBek (Ameriketako Estatu Batuek) eta Kolonbiako Kolonbia Plana gauzatu zutenetik.

Koka sailtatik bizi den hainbat familiaren egoera ekonomikoa nabarmen txartu da, eta Ekuadorko Sucumbioseko departamendu horrekin zeuzkan merkatu tratuak %40 gutxitu dira. Hilketak, segurtasun eza, zenbait agintari publikoren ustelkeria eta zigorrak jaso gabeko krimenen kopurua asko hazi dira a'i komunitateen bizitoki diren muzaz bi aldeetako guzietan.

Kolonbia Plana betez, ofizialki, koka sailak gai kimikoekin fumigatzen dituzte, airez, baina koka landarearen ekoizpena ez da gutxitu, eta a'ien lurraldeak kutsatu dira. Horrez gain, probintziako hainbat lurralde gerrillariren atzeragoardia gune bilakatu dira, eta a'iek zeharkatzen dituzten ibaiak droga eta arma trafikatzailerak erabiltzen dituzte sarri askotan, materiala batera eta bestera garraiatzeko, eta arazo ugari sortu ditu horrek.

## Petrolioaren eta gabeziaren gune

**Ekuadorko BPGaren erdia sortzen da Sucumbios-en; hala ere, edateko urik, eskolarik eta osasun zerbitzu egokirik gabe bizi dira**

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Tolosa.** Poxpolo ta Mokolo eta Tolosako Musika Banda, Leidor aretoan, 12:00etan.

**Tolosa.** Laskorain abesbatzak eta Hernani Musika Eskolako abesbatzak kontzertua eskainiko dute Jesusen Alaben ikastetxearen kaperan, 12:00etan.

**Tolosa.** Udaberri dantza taldeak bere 50. urteurrena ospatzen du, eta hori dela eta belauadien kalejira antolatuko du. Parte-hartzaileei deitzen diete etzi egingo duten bilerara, Kultur Etxean, 20:30ean.

**Tolosa.** 10:00etan hasita, zesta-punta partidak izango dira Beotibar pilotalekuan.

**Ibarra.** I. Maratoia Indoor izango da ekainaren 16an Belabietako kiroldegian, 17:00etatik 19:00etara. Izen-ematea, kiroldegian edo 943 671544 telefono zenbakian.

**Villabona.** Behar-Zana kirol elkarteak bere festa izango du ekainaren 2an. Afarirako eta danborradarako izen-ematea zabaldu dute dagoeneko. Danborradako entsegu maiatzaren 31n, 19:30ean, izango da elkartean bertan.

### ZINEMA

**Tolosa.** *Piratas del Caribe 3* filma izango da ikusgai Leidor aretoan. Gaur, 16:30ean eta 19:45ean eta bihar, 18:00etan eta 21:30ean.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

**Tolosa.** Etxebeste, JM. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.  
**Iruztzun.** Mutilloa, A. San Martin, 5. 112.

#### Bihar

**Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.  
**Leizta.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

### IRRATIA

#### Txolarre Irratia (107.5, 101.2 FM)

20:00etatik aurrera. Udaltzauteskunde eta fou hauteskundeenginguruko saio berezia. Tolosaldeko emaitzen berri emango dute eta udalordezkarri berriak elkarriketatu dituzte.

▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Leihotik, munduari so

**ZIZURKIL ▶ Maitza Saltsan kultur egitarauaren barnean, Jaimagunea izan zen atzokoan, urrunekoaren eta gertukoaren muga hautsi zuena**

### ASIER IMAZ

**J**aimagunea Zizurkilgo Joxe Arregi plazan aurkitzen den karpa zuria da, barnera sartzen den oro ordea, segidan ohartzen da munduari irekitako leiho batetatik begira ari dela. Kultura ezberdinen bilgune, paisaia ezberdinen ikusgela.

Atzo, 11:30ean Jaimagunearen barnealdean haurrak elkarturik itxaroten zeuden. Al-fonbra baten gainean eserita, atzerriko musika batek barebare zeuzkan geldi egon ezinik egoten diren txikiak. Bien bitartean, karpa zuriaren kanpalkaldean, txilborra agerian eta gerria mugituz dantzan zebilen ijito euskalduna Jaimagune barnera urbiltzen ari zen. Barnera sartu orduko, haur guztiak begira zituen.

«Ijito euskalduna naiz eta dantzaria izatea da nire ilusioa» esanaz, bere amonaren istorio bat kontatzen hasi zitzaion aurrean zituen ikusle txikiak. «Neska bakarti baten istorioa kontatuko dizuet» eta horrela jakin zuten haurrek Afrikatik barrena bidaian ibilizen neska ile beltzaranaren kondaira. Ijito euskaldunak



arratsaldean afrikar dantzei utzi zien lekua. Henna-zoko ta-tuai tailer eta batez ere teak, lehiu askotara bezala, ilusentzia sartu zuen Jaimagunera. Ilargiak ordea *Gau mestizoa* ekarri zuen berarekin; kapoelara brasildararen erakustaldia, Canon flamenko fusio taldea eta Aritz Sound Sistem. Gaur berriz, 20:00etan Apaizac Obeto bertso emanaldia aurkituko dugu Zizurkilen.



Atzo, Zizurkilen, Jaimaguneko bi une. ASIER IMAZ

### AGURRAK ▶



#### ZORIONAK

Gaurko eguna ondo baino hobeto pasa dezazula. Muxu bat denon partetik.



#### URTE ASKOAN

Pili (Tolosa). Amona, ama eta emazte paregabea. Maitze zaitugu. Zorionak!

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**ceinpro**

**Diseinuar eta kreoazioa halmenean oinarritutako enziketa**

- **DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**  
 ARTE GRAFIKOTAN D FAMILIA PROFESIONALEAN GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA  
 IRALPENA - 2. Inaztura / 2000 ordu  
 SARRERA - LH1 - LH11 - EE1 - edo HSGCL SATXOLERGIA gaituztu
- **ARTE GRAFIKODEN AURBEINPRIMAKETAN TEKNIKARIA**  
 ARTE GRAFIKOTAN D FAMILIA PROFESIONALEAN EPDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA  
 IRALPENA - 2. Inaztura / 2000 ordu  
 SARRERA - 2. BEB - LH11 - EE1 - edo CBH gaituztu